

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaindu behar duten zergadunen 2025eko errolda

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaindu behar duten guztiei jakinarazten zaie honako toki hauetan egongo dela ikusgai, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera, 2025eko ekitaldiko zerga horri dagokion zergadunen errolda:

Udalaren kuotak: dagokion udaletxean.

Probintziako eta estatuko kuotak: Arabako Foru Aldundian.

Zergadunek egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote, errolda jendaurrean jarri eta hogeit egun balioduneko epean, zerga kudeatzen duen erakundeari edo, bestela, Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari.

Halaber, iragartzen da jarduera ekonomikoen gaineko zerga epe hauetan bilduko dela:

I. Ordaintzeko epea.

a) Udalak 2025eko irailaren 1etik urriaren 31ra bitartean bilduko du jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

b) Premiamendu aldia: 2025eko azaroaren 1etik aurrera, premiamenduko betearazte bide administratiboa hasiz eta dagokion errekararekin (Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 28. artikulua).

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

a) Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontua aldatu ez badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

b) Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa bankuren batean helbideratuta ez daukatenean udal bulegoetan baino ezin izango dute egin borondatezko epean.

III. Gomendioak.

Bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak, zein interesdunei jakinarazpenak egiteko helbideen aldaketak, Aguraingo Udalaren bulegoetan izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Agurain, 2025eko uztailaren 3a

Alkatea

RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR